



## Urtebeteko jardunaren arrastoa

Urtebete baino gehiago pasatu da COVID-19aren izarria Euskal Herrira heldu zenetik. Egoerak ondorio zuzena izan du osasun langileen jardunean, eta zama fisiko eta psikologiko handia eragin die. • 2-3



## 6.680 durangarrek trenbidearen proiektua geldiaraztea eskatu dute

Galdeketa deituriko herritarren %28,57k eman zuten botoa joan zen domekan. Gobernu taldeko alderdiek eta oposizioek interpretazio kontrajarriak egin dituzte emaitzari buruz. • 4

## "Egoera mingarri batetik datorren liburua da, baina badu jolasetik ere"

**Kultura** | Jon Ander Urkiaga zornotzarrak 'Bizia min' poema liburua argitaratu du Luces de Gálibo argitaletxeagaz. Heriotzaren eta bizitzaren gordintasunari buruz jardun du liburua osatzen duten 40 poemetan zehar. • 16

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

**BERRIZ** Eitua industriagunea, 71C Tel.: 946 824 550  
**GERNIKA** Goiko Ibarra, 26 Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net



1.000 kg-tik ( KUBOTA U-10 )  
8.000 kg-ra ( KUBOTA KX-057 )







Nerea Alza erizain laguntzaile iurretarrak (argazkian, erdian) urtebete baino gehiago darama Galdakaoko ospitaleko COVID unitatean lanean.

## Lan egiteko modu berrietara egokituta, urtebeteko jarduna arrastoa uzten dabil osasun langileen artean ere

Birusaren inguruko jakintza handitu ahala, lanerako baldintza eta protokoloak hobetu egin direla nabarmendu dute langileek, izurria luzea izaten ari den arren

### ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO

Urtebete igaro da Pedro Sanchez Espainiako presidentek konfinamendua ezarri zuenetik. Neurriak "ezinbestekoa" ez zen jardura oro eten zuen. Muturreko neurria izan zen kutsatze komunitarioa mozteko. Ordu-rako, Nerea Alza erizain laguntzaile iurretarra COVID-19aren aurkako lehenengo lerro horietako batean zebilen lanean. Otsailean lan kontratua sinatu zuen Galdakaoko ospitalean, gripearen aurkako kanpainarako. Baina, gero, Galdakaoko ospitaleko solairu bat koronabirus kasuetarako egokitu zuten, eta profesional talde bat horren kudeaketara bideratu. Azken urte osoa han eman du lanean Nerea Alzak. Bertan egon da ospitaleak eta ZIUak gainezka egin duten garaian, eta baita olatuak etorri direnean ere. "Nekatuta" dagoela azpimarratu badu ere, baikortasunetik ikusi gura du izurriaren bilakaera. "Orain, behintzat, badakigu zelan lan egin. Segurtasun neurriek asko

zailtzen dute hartu-emanen pazienteekin, baina, hurbiltasuna adierazi guran, nire izena idatzi izan dut aurreko mantalean, adibidez", azaldu du Alzak. Urte osoa darama COVID unitatean lanean.

Aran Agirre erizain zornotzarrak gogoan ditu orain urtebeteko une horiek. Bera ere Galdakaoko ospitaleko langilea da; osasun zentroko jarduna kolapsatu zenean, ZIUra lekualdatu zuten. "Shock bat izan zen. Ingresatuta zeuden denak intubatuta zeuden, buelta eman-

**Paziente eta langileen arteko hartu-emanen asko baldintzatzen duen gaixotasuna da COVID-19a**

da", adierazi du Agirrek. Azken hileetan, ZIUan jarraitu du lanean. Koronabirusak ospitaleko jardunean duen eragina azpi-

marratu gura izan du, batez ere intzidentzia tasa altuak dauden sasoietan. "Gatxa da. Ingresoak luzatu egiten dira denboran, eta berriak datozenean antzerako egoeran datoz. Dominoaren modukoa da; pieza bat jausiz gero, besteak atzetik doaz. Hiru alta eman, eta goiz horretan bertan beste hiru ingreso dituzu, eta berdintsua da egoera", azaldu du. Aurrera ez egitearen sentsazioa areagotzen du horrek, bere esanetan.

**Urtebete pasatu eta gero osasun langileek sentitzen duten "nekea" azpimarratu du gura izan dute**

Birusa ezagutzen joan ahala, lan egiteko baldintza eta protokoloak aldatu egin direla onartu dute langileek. "Lehenengo olatuan, kaosa nagusitu zen. Orain, oster, ezagutzen dugu COVIDa, gehiago behintzat

bai, eta horrek asko errazten du jarduna. Badakigu sukarrak eta oxigeno mailak oszilazioak edukiko dituztela, eta adi egon behar dugula", gaineratu du Alzak.

**Osasun langileen artean ere, gizartean lez, beldurra gertutik bizi izan dute urte osoan zehar**

### Arrasto psikologikoa

Urtebete pasatu eta gero, ospitaleetan ez ezik, COVID-19aren eragina nabaria izaten ari da gainerako osasun langileen jardunean ere. Beldurra aipatu dute askok, ezjakintasan sortu dezakeen antsietatea beste batzuek; ardura, egonezina... Izurritea "zama" lez dute psikologikoki. "Beldurra sumatzen dut lankideengan, baita neure buruarengan ere. Lankideen artean kideza albo batera utzi dela esango nuke. Gizartean

egon den moduan, osasun arloko profesionalen artean ere gertatu da, horretaz berbarik egin ez den arren. Beldurraz gainera, ziurgabetasuna nabarmenduko nuke. Azken finean, inork ulertzen ez duen gaixotasun bat da, ezagutza ezak beldurra eragiten du, eta ziurgabetasun horrek antsietatea. Eta kontu bi horiek eragina dute osasun arretan", azaldu du Mikel Gandarias mediku durangarrak. Gandarias Elgoibarko (Gipuzkoa) ambulatorioan dabil lanean azken hileetan.

### Txertoa itxaropen

Osasungintza profesionalera ailegatzeko pausoa ematen dabiltzanei ere eragin die izurriak. Azken urteko praktikaldiak eta gradu amaierako lanak goitik behera baldintzatu zuten Jone Izagirre erizain elorriarra. Udatik hona, Matienako ambulatorioan dabil lanean, PCR probak egiten. Orain, txertaketa kanpainan murgilduta dago Izagirre.



## “Denok gura dugu normalitatea berreskuratu, baina arduraz jokatu behar dugu; aurrean duguna ez da ahuntzaren gauerdiko eztula”



IURRETA • A.M.

**Nerea Alza erizain laguntzailea (Iurreta, 1994) nekatuta dago. Galdakaoko ospitalean dabil lanean, iazko otsailetik. Gripearen aurkako kanpainarako kontratatu zuten, baina Covidaren aurkako unitatean sartu zuten lanean martxoan hasi orduko. Orduetik, koronabirusaren solairuan dabil lanean iurretarra.**

**Urtebete pasatu eta gero, hobera egin dugu?** Hainbat faktore kontuan hartu behar da, baina baietz esango nuke. Orain instrumental gehiago dugu, bentiladore

gehiago, eta badakigu zelan lan egin. Ezagutza maila askoz ere handiagoa da orain. Baina jendearen umorean eragina duela esango nuke. Tolerantzia maila jaitsi egin delakoan nago. Ni, adibidez, erizain laguntzailea izateaz gainera, erizaintza ikasketak egiten nabil. Lanagaz, ikasketekin... igartzen da psikologikoki nekatuta gaudela, eta, tolerantzia maila, orokorrean, jaitsi egin da. Langile guztiak horrela gaudela esango nuke. Egoera bera, gurasoak ikusteko zailtasunak... Nekatuta egoteko arrazoiak ditugula uste dut.

Lanean, behintzat, sekulako taldea osatu dugu, familia baten modukoa. Zure esperientziak eurekin partekatu ditzakezu, antzerakoak direlako, azken finean, eta horrek asko estutzen du hartu-emanan. Niretzat beste familia bat edukitzearen modukoa izan da hau, azken hiletan batez ere.

**Aurrera begira, argia ikusten duzu?**

Nik uste dut kontu hau laster amaituko dela; bakunagaz, gainera, geroago eta hobeto joango garela uste dut. Aste Santuan gertatu daitekeenagaz beldur apur bat dut. Mundu guztiak gura du normalitate bat, baina arduraz jokatu behar dugu, aurrean duguna ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula.

## “Lehendik ere nahikoa justu genbiltzan, baina orain oso gutxigaz saturatzen dira kontsultak”



DURANGO • A.M.

**Mikel Gandarias medikuak (Durango, 1991) Elgoibarko (Gipuzkoa) anbulatorioan lanean eman ditu azken hileak. Egoerara ohitzera heldu daitekeela esan arren, koronabirusak eragindako "presio konstantea" hor dagoela azaldu du.**

**Zelan eragiten du koronabirusak eguneroko jardunean?**

Momentu honetan, *hirugarren olatu* deitzen dutena egonkortu egin dela dirudi eta lasaiago gaudela esango nuke. Otsailan lanez lepo egoten gara gripea dela-

eta; aurten ia ez da griperik egon, eta alde horretatik lasaiago egon gara. Hala ere, koronabirus kasuak igotzen direnean, lan kargak gora egiten du nabarmen, eta horrek presioa areagotzea dakar. COVIDak presio hori konstantea izatea ekarri du: jendea ezin da elkartu itxarongelan, zu ere zain zaude positiboa izan daitekeen kasu bat noiz artatuko... Hau dena hasi zenetik, etenik bako tentsio bat dago anbulatorioetan.

**Elgoibarrek intzidentzia tasa handia izan du.**

Kutsatzeek gora egiten duten neurrian, lan karga igo egiten da. Paziente bat sintomekin hasten denean, prozesu bat abiatzen da; olatuak aurrera egin ahala, koadro konplikatuagoa duten pazienteak pilatu egin daitezke, eta horrek dakar, eguneroko kontsultez gainera, horrelako 4-5 paziente artatu behar izatea. Lehendik ere nahikoa justu genbiltzan, baina orain oso gutxigaz kontsulta saturatu egiten da. Eta horretara ere ohitu gara.

**Pertsonalki ere igarriko zenuen.**

Iazko martxotik lanpostu desberdinetan egon naiz, eta, behar bada, ez dut urte osoa jardun berean daraman jendeak igarri dezakeen neke hori sentitzen. Denborak lagundu egin du protokolo eta ohi-turak sortzen, eta horrek ere laguntzen du gauzak hobeto eramaten.

## “Egon dira egunak ehun proba baino gehiago egin ditugunak; beste egun batzuk lasaiagoak dira”



ELORRIO • A.M.

**Jone Izagirrek (Elorrio, 1998) iazko ekainean amaitu zuen erizaintza gradua. Orduetik, Matienako anbulatorioan dabil lanean, PCR probak egiten batez ere. Izagirrek dio lan karga oso baliagarria zaiola Durangaldean izurriaren jorari jarraitzeko.**

**Zein da zure lana?**

Ekainean amaitu nuen karrera, eta orduetik Matienako anbulatorioan nabil PCR probak egiten. Sintomak dituzten pertsonekin edo kasu positiboren batez hartu-emanan edukitu duen jendeagaz lan egiten dugu.

Medikuarenera datozenak ere artatzen ditugu.

**Olatuen joan-etorria igartzen duzue?**

Bai, gorabeherak handiak dira. Matienako anbulatorioan Abadiñoko, Berrizko, Elorrioko eta Zaldibarko pazienteak artatzen ditugu. Herri horietariko bat eremu gorrian sartzen denean igoera bat igartzen dugu, eta alderantziz ere bai; jaitsiera badago, lasaiago ibiltzen gara. Durangoko egoerari ere arreta handia ipintzen diogu. Igoz gero, badakigu guk ere mugimendu gehiago edukiko duguna. Guk, egin dugun gehiena, egun bakarrean 140 proba inguru dira. Egon dira egunak ehun proba baino gehiago egin ditugunak, eta beste batzuk lasaiagoak. Horiek egoeraren adierazleak dira guretzat. Proba asko egiten ditugu, baina lanean giro ona daukagu eta horrek lanari beste gogo batez hartzeko laguntzen du.

**Aurrera begira, zer sentsazio duzu?**

PCR probak egiteaz gainera, orain txertaketa kanpaina betean nabil lanean. Behararren arabera dira gure kontratuak, eta egoera oso aldatuta denez, ez dakigu ezer segurua. Egia esateko, egoera den modukoa den arren, pozik nago taldean dugun giroagaitik, eta orain egoera hobera doala dirudi. Bakunazioa ere hasi da, eta argi apur bat ikusten hasi dela esango nuke.

## “Soka tenkatu eta tenkatu gabiltza eta gehiago ezin denean dena ixten da; gero, berriro hasi beharra; horrek ez dio inori mesede egiten”



ZORNOTZA • A.M.

**Aran Agirre (Zornotza, 1991) erizain zornotzarra Galdakaoko ospitaleko ZIU unitatean egon zen izurriaren hainbat momentutan. Hango egoera gogorra izan arren, beste solairu batzuetako egoera ere larria dela azpimarratu du. Orain ere ohitura edo jardun batzuk aldatu beharrekoak direla uste du.**

**Hobera egin dugu urtebete pasatu eta gero?** Iazko martxoan, ezjakintasunetik laguntzeko gogoz eta indartsu geunden gutariko asko. Urtebete geroago, antzerako egoeran jarraitzen dugula ikusita,

nahikoa frustragarria da. Paziente zein langileek, urtebete daramate hor; fisiko eta mentalki gogorra da hori.

**Egoera honez bizitzera ohitu garela esango zenuke?**

Enpatia falta izugarria dagoela esango nuke. Izugarriak diren zenbaki batzuetara ohitu gara, baita semaforoen sistemara ere. Munduko beste toki batzuetako tragedietako irudiak ikusten ditugunean lez gertatzen zaigu, ohitu egin gara. ZIU-tako egoera erakusten da, eta azpimarratzen da, baina, nire ustez, egoera tristea goa da beste solairu batzuetan. Horietan ere larria da, baina hori ez da hainbeste azaleratzen.

**Zein etorkizun ikusten diozu honi?**

Nahikoa ezkorra naiz. Aste Santuaren ondoren egoerak berriro okerrera egingo duela esango nuke. Bakuna egoteak lagunduko du, baina bakoitzak bere arduratu hartu behar duela uste dut. Gauzak gradualki egin behar dira, kolpean egin beharrean. Horrela, osasun sistema kolapsatzea ekidinduz genduz. Soka tenkatu eta tenkatu ibiltzen gara, eta gehiago ezin denean guztiak ixten da. Eta gero, berriro hasi behar. Eta horrek ez dio inori mesede egiten. Jendartean ere eragiten du, jendearen aldatzean. Kolektiboki pentsatu behar genduz.





Durangarrek gaur egun indarrean dagoen PERI 1 Trenbidea proiektuaren geroaz bozkatu dute.

## Trenbidearen proiektuari bizkarra

6.680 durangar trenbidearen proiektua geldiaraztearen alde agertu dira. Galdeketara deitutako herritarren laurdenak baino gehiagok eman zuten botoa joan zen domekan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Erabakitze eskatu zitzairen eta erabaki dute. 7.077 durangarrek sasoi bateko trenbideari buruzko galdeketa parte hartu zuten joan zen domekan. Botoa ematera deitutako herritarren %28,57k. Emaizta honako hau izan zen: 6.680 durangarrek PERI 1 Trenbidea geldiaraztearen aldeko botoa eman zuten, %94k baino gehiagok. Luze barik ailegatu dira bateko zein besteko alderdien balorazioak, eta boti-

lagaz pasatzen dena gertatu da hor: batzuek botila erdi beterik ikusten duten bitartean, beste hainbatek botila hutsik ikusten dute. Durangoko udal gobernua osatzen duten alderdi bientzat, adibidez, erdi beterik dago botila. Domekakoa ekitaldi "historikoa" izan zen eta, Ima Garrastatxu alkatearen esanetan, "argi" geratu da durangarrek ez dituztela "18 pisuko bost dorre gura". Parte hartzeak "aurreikuspenak gainditu" zituela adierazi zuten EH Bilduk

eta Herriaren Eskubideak. Ima Garrastatxuk honako balorazio hau egin zuen: "7.000 lagunek baino gehiagok eman gura izan dute iritzia. Guretzat hori asko baino gehiago da, ikaragarria da. Gainera, ikusita zer egoera bizi izan dugun: pandemia, alderdi batzuen boikota eta atzo egin zuten eguraldia. Hori guzti hori kontuan hartuta, parte hartzeak gure aurreikuspenak gainditu ditu", nabarmendu zuen. Julián Ríos alkateordearen esanetan, "aurre-

kari" bat ezarri zen domekan. "Herritarrei parte hartzen" utzi behar zaiela berretsi zuen.

Oposizio talde biek, oster, erdi hutsik ikusi dute botila. EAJk "abstentzio handia" egon zela iritzi dio. Alderdi jeltzalearen esanetan, galdeketak, planteatu zen

**Erabaki: "Orain instituzioei dagokie prozesu parte hartzaile bati eta proiektu bideragarri bati ekitea"**

moduan, ez zuen zentzurik eta "abstentzio handiak adierazten du durangarrek erakundeen artean adostutako proiektu bideragarri bat gura dutela". Alderdi sozialistako kideek ere ildo beretik berba egin dute. Jessica Ruiz PSE-EEren bozeramaileak domekakoa "denbora eta dirua galtzea" izan zela adierazi zuen. Bere esanetan, "abstentzioak irabazi" zuen, "jendeak proiektu bideragarria eta erreala zein den ez dakielako" eta "jendeak zalantza asko" zituelako.

**Erabakiren agurra**

Erabaki plataformaren esanetan, domekakoa "ahalduntze ariketa izugarria" izan zen. Parte hartzeak "aurreikuspen guztiak" gainditu zituela esan du. "Durangok domekan esan zuena kontuan hartuta, orain instituzioei dagokie PERI 1 Trenbidea bertan behera utzi eta prozesu parte-hartzaile bat izango duen alternatiba bideragarri baten azterketa martxan ipintzea", dio. Plataformak amaitutzat eman du bere bidea. Eskerrak eman dizkie durangarrei.

## Zenbakiak

1

**%28,57**

**Parte hartzea.**

24.700 herritar zeuden deituta botoa ematera. %28,57k parte hartu zuten, 7.077 durangarrek guztira.

2

**%94,4**

**"BAI" bozkatu dutenak.**

Indarrean dagoen proiektua baztertu eta alternatiba bideragarri bat ekarriko duen parte hartze prozesu bat hasteko eskatu dutenak. 6.680 guztira.

3

**51**

**Boluntario kopurua.**

Domekan dena ondo joan zedin, 51 boluntariok lan egin zuten. Eurekin batera, 7 udal langilek bermatu zuten galdeketa egokitasuna.

4

**Ez loteslea**

Galdeketa ez da juridikoki loteslea izan. Araudiak ez du emaitzaren zilegitasuna baldintzatzeko gutxiengo parte-hartze kopururik markatzen. Gobernu taldeak politikoki loteslea izan dadin lan egingo duela dio.

## Erreakzioak

**Abstentzio handiak adierazten du durangarrek erakundeen artean adostutako proiektu bideragarri bat gura dutela**

DURANGOKO EAJ

**Durangarrek oso mezu argia helarazi digute: ez dituzte hamazortzi pisuko bost dorre gura**

i. GARRASTATXU, EH BILDU

**Aurrekari bat ipini da. Herritarrei parte hartzen utzi behar diegu. Iritziek gure demokrazia eta Durango hobetzen dute**

JULIÁN RÍOS, HERRIAREN ESKUBIDEA

**Abstentzioak irabazi du, jendeak zalantza asko zituelako eta ez dakitelako proiektu bideragarri eta erreala zein den**

JESSICA RUIZ, PSE-EE

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko martxoaren 18a  
19. urtea - 843. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



**DURANGO** • JONE GUENETXEA

Júlia Martí Comasek (Karrantza, 1989) berbaldia emango du Durangoko San Agustin Kultur Gunean, martxoaren 18an, Durangoko Bilgune Feministak gonbidatuta. Multinazionalen munduko hainbat herrialdeetan zein gure inguruan duten eragina aztertuko du genero ikuspuntutik.

**Latinoamerikako Multinazionalen Behategiko kidea zara. Zein lan egiten duzue?**

Botere korporatiboaren inguruan lan egiten dugu. Enpresa multinazional hauen eragin zehatzen analisia egiten dugu, baita enpresen eta instituzioen botere harremanei buruzkoa ere. Harreman horiek erraztu egiten dute enpresa hauek hain inpaktu larria izatea. Bestalde, alternatibak ere lantzen ditugu, begirada lokal eta ekofeminista batetik.

**Zein eragin dute multinazionalak latinoamerikan, eta bereziki genero ikuspuntutik emakumeengan?**

Argitu gura nuke enpresa multinazionalak hemen ere badutela eragina. Hala ere, inpaktua ezberdina da. Hemen, energia ekoizten duten enpresen kasuan, pobrezia energetikoagaz edo tarifa altuekin dute zerikusia. Latinoamerikan, megaproiektuak ikusten ditugu. Energia berriztagarrien kasuan, enpresa hauek ez lukete inguruan

# “Feminismotik alternatibak lantzen gabiltza, transnazonaletatik 'desentxufatu' ahal izateko”

Júlia Martí enpresa transnazionalen eragina aztertzen du Latinoamerikako Multinazionalen Behategian

hainbeste inpaktu izan behar, baina energia berdea barik irabaziak handitzea denez euren helburua, eguzki-parkeak edo elizedun handiak egiten dituzte, eta horrek eragin handia du inguruko komunitateetan. Gutxi gorabehera, komunitate hauek oreka bat mantentzen zuten. Enpresa handiak komunitate batera heltzen direnean, batez ere naturagaz, kulturagaz eta nekazaritzagaz duten loturan inpaktu handi bat gertatzen da. Bizitzaren prekarizazioa dakar eta bizitza prekarizatzen denean egoera horrek eragin handiagoa du emakumeengan. Bizitzaren prekarizazioa ahalegin bikoitza egin behar denean, emakumeek sufritzen dute gehien. Gainera, honi biolentzia eta krimen organizatuaren hazkundera gehitzen badiogu, emakumeengan segurtasun falta handiagoa dago.

**Egoera honen aurrean, zein alternatiba dugu?**

Enpresa hauetako batzuek irudi bat saldu gura izaten dute hemen: ingurumenagaz konprometituta



**Enpresa hauetako batzuek irudi bat saldu gura izaten dute hemen: ingurumenagaz konprometituta daudela eta feministak direla**

JÚLIA MARTÍ

daudela eta feministak direla. Irudi faltsua da. Hor dago Ropa Limpia kanpaina, arroparen industriaren eragina salatu duena. Sareen arteko aliantzak bultzatu behar ditugu. Bestalde, instituzioen aldetik ere kontrol bat egon beharko litzateke, giza eskubideak errespetatzen dituztela bermatzeko. Bestalde,

feminismotik alternatibak lantzen gabiltza, transnazonaletatik 'desentxufatu' ahal izateko. Gure bizitza ekonomiko eta soziala transnazonaletatik kanpo egitea, hain zuzen ere. Elektrizitatea ez diogu zertan Iberdrolari erosi, beste kooperatiba batzuk daude. Janaria ez dugu zertan Mercadonan erosi.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### 2021-2022

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen	Martxoak 25 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 25 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	Martxoak 24 18:00
•Mekatronika Industrialia	Martxoak 24 18:00

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[orientazio.lhm@mondragon.edu](mailto:orientazio.lhm@mondragon.edu)  
 664 298 704 • 664 298 683

Mikel Uribesalgo Arbulu . Elorrio

**Zergatik aukeratu zenuen ASIR zikloa?**

Ni batxilergotik nentorren eta ez nekien zer egin. Nire familian gradua bat egitera animatzen ninduten, baina momentu horretan ez nuen neure burua prestatuta ikusten gradua aurrera ateratzeko, eta horregatik goi mailako zikloa aukeratu nuen, ASIR hain zuzen ere. Informatika mundua betidanik gustatu izan zait eta horretan lan egin nahi nuen.

**Zergatik aukeratu zenuen MGEP?**

Bi arrazoiengatik aukeratu nuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoa: lehenago, bertan dauden instalazio eta baliabideengatik, eta bigarrena, bertako irakaskuntza metodologia aktiboagatik. Ate irekietan MGEPera etorri nintzen, eta instalazioak ikusteko aukera izan nuen. Eta egia esanda, txundituta geratu nintzen hauek ezagutzerakoan, ikasleen lanak eta proiektuak aurrera eramaten laguntzeko zeuzkaten azpiegitura guztiekin. Bestetik daukan hezkuntza ereduak, erronkak eta taldea egindako proiektuetan oinarritutako irakaskuntzak, erakarri ninduten, horrek erakusten baitzuten nola lan egingo duzun etorkizunear, benetako proiektuetan. Aurrekoarekin lotuta, irakaskuntza honen beste puntuetako bat prestakuntza DUALa litzateke. Prestakuntza DUALa ia zentro guztietan ezarrita dago, baina zentro guztiek ez dute MGEPek duen hain hurbileko lotura enprekin; izan ere, kooperatiba denez, lantokiaren eta enpresaren arteko harremana oso hurbila da, eta, azkenean, zure etxetik gertu enpresa bat aukeratzeko erraztasun gehiago izaten dituzu, ikasten ari zarenean arabera.

**Nolakoa izan da zure esperientzia?**

Hasierako arazo bakarra garraio kontuak ziren. Oraindik ez neukan kobreako gida-baimenik eta egunero autobusa hartu behar izaten nuen. Bestalde, klaseko giroa oso ona izan da urte bi hauetan, talde lan ona eduki dugu eta lagun-talde berezia osatu dugu, oraindik kontaktuan gaude eta afariak egiten ditugu elkartzeko.

**Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nolakoa izan da zuretzat esperientzia hau?**

Bai, metodologia honek lan munduari begira onura asko ekarri zizkidan. Asko lantzen genuen lan taldean lan egitea, eta horrek gure artean komunikazio hobea sortu zuen. Erronka oso interesgarriak egiten genituen, erronka hauek beti zeukaten lan munduaren isla. Erronka hauek beti arazoren bat planteatzen zuten eta geuk konpondu egin behar genituen.

**Eta nolakoa izan da DUALeko esperientzia?**

Lehen maila amaitzerakoan, DUALean hasi nintzen. Hasieran egun osoz, eta gero, 2. maila hasi ginenean irailean, goizez ikasi eta arratsaldean lan egiten nuen. ULMA Handling Systems-en (UHS), Oñatin, egon nintzen lanean urte betez. Enpresa honetan, biltegi automatikoak neurrira egiten dituzte, hainbat software eta hardwarea kudeatuz. Nire lehenengo lana izan zen eta asko ikasi nuen urte horretan. Adibidez, lana aurrera ateratzeko, talde lanean aritzea eta gure artean komunikazio ona izatea oso garrantzitsua dela. Horretaz gain, asko eskertu nuen haien hurbiltasuna, arazoren bat neukanean beti zeuden prest niri laguntzeko.

**Eta zikloaren ondoren, zer?**

Ziklo hau bukatzerakoan ikasten jarraitu dut, momentu honetan Mondragon Unibertsitatean nago Ingeniaritza Informatikoa ikasten. Gogorra egiten ari zait, zeren eta salto handia dago ziklotik gradura. Azken batean, ziklo batean gehiengo praktikak egitean datza eta gradu batean, aurreko mailan bereziki, oinarriko zientzako ikasgaiak direla eta teoria gehiago dago.



# Durangaldeko 9 ikastetxe publikotan martxan da bertoko eta sasoiko produktuak kontsumitzeko proiektua

Berton Bertokoa dinamika pauso bat gehiago eman gura du ikastetxe hauetako jantokietako elikaduran eragiteko



Martitzenean, bertoko eta sasoiko produktuak ikastetxeetako sukaldetan sartzeko proiektua aurkeztu zuten Iurretako Maiztegi ikastetxean.

## DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Berton Bertokoa ekimenak urteak daramatza eskoletako jantokietako elikaduraren kalitatea hobetu guran. Eskola bakoitzak bere sukaldia izatea oinarritzak dela aldarrikatu

dute denbora honetan. Bada, ezina ekinez egina. Zaldibarren, Atxondon, Durangoko Zabalarren, Iurretako Orobiogoitian eta Abadiñoeko Traña-Matienan bideratuta daude sukaldia eraiki ahal izateko

proiektuak. Ikastetxe horietariko batzuetan, uda honetan bertan egingo dituzte sukaldia. Aste honetan bertan jakin dute Traña-Matienako eskolako sukaldia proiektua 2019-2023 azpiegituren

planean sartu duela Hezkuntza Sailak.

Baina, dinamika honetako kideen esanetan, beste pauso bat emateko ordua da. Berton Bertokoaren ustez, "sukaldia duten ikastetxeentzat ez da aurrerapausorik eman eta eredia aldatzeko eskakizunek ez dute biderik aurkitu. Horregaitik, "Berton Bertokotik aurrera jotzea erabaki dugu".

Durangaldean sukaldia duten edo izango duten 9 eskola publikotan bertoko eta sasoiko produktuak sukaldian sartzeko egin beharrekoak definituko dituen proiektua aurrera eramatea gura dute. Gaineratu dutenez, Guraso Elkarte eta Eskola Kontseiluek proiektuan parte hartzea eta laguntzea erabaki dute (Zelaieta-Abadiño, Berriz, Elorrio, Iurretako Maiztegi eta Orobiogoitia, Mallabia, Zornotza, Atxondo eta Zaldibar).

## Teknikariaren laguntza

Proiektua diseinatzeko, Isa Alvarez teknikariaren laguntza dute. Agroekologian eta elikadura siste-

metan aditua da Alvarez. 15 urtean gai hauek ikertzen eta zabaltzen jarduteaz gainera, Elikagaien Segurtasunerako Munduko Batzordeko partaidea da. Proiektua hasita dago eta hile batzuk beharko ditu. Ikasturte amaieran prest izango dute eta Hezkuntza Departamentura eramango dute, datorren ikasturtean martxan ipintzeko.

## Berton Bertokoak Isa Alvarez teknikariaren laguntza du proiektua diseinatzeko

Egitasmoa guraso, zuzendari, irakasle eta langileei zabalik dago, eta gura dituzten ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Ikerketa Guraso Elkarten bitartez eta diseinatu berri duten kamiseta eta telazko poltsak salduta finantzatu dute. Honeguz lagundu edo informazio gehiago gura dutenek, [bertonbertokoa@gmail.com](mailto:bertonbertokoa@gmail.com) helbidera idatzi dezaketela azaldu dute.

Gogoratu dute GPGA ekimenak topaketa bat antolatu duela eredu-aldaketa honetan inplikaturik dauden pertsona eta kolektibo guztiekin, martxoaren 27rako, 10:30ean, "ideiak eta energiak partekatuzeko".

# AHT Gelditu-k dio kamioiak "udalaren baimenik barik" dabilzala AHTrako lanak egiten Abadiñon

Udalak azaldu du auziaren "gainean" dagoela eta udaltzaingoak auziari lotutako txostena zabaltzea zuzen zuzen orain denbora bat

## ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Joan zen barikuan, Abiadura Handiko Trenaren lanak salatu zituzten Abadiñon. AHT Gelditu Elkarlanak deituta, hainbat lagun batu zen Muntzaratzetik Goxentziarako zubian, bide bazterreko hormigoi lantegiaren aurrean. Obretara doazen kamioien joan-etorriak "udalaren baimenik barik" egiten dabilzala adierazi zuten. Bertan batu zirenen artean egon zen Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramailea. Bere esanetan, "zortzi tonatik gorako kamioiek ez dute handik zirkulatzeko baimenik, udalaren baimena eduki ezean", eta horixe litzateke, AHT Gelditu Elkarlaneko kideen esanetan, Muntzaratzen gertatzen zebilena. "Obrak egiteaz arduratzen den enpresak horretarako baimena eskatu zion udalari, iaz. Udalak erantzun zion, horretarako trafiko eta segurtasun azterketa bana aurkeztu behar zutela. Eskaria tramitatzen dabilza, baina, gaur gaurkoz, udal bulego teknikoaren esanetan, kamioiek ez

dute hemendik pasatzeko baimenik", azaldu du Urrutiak.

Abadiñoeko alkate Mikel Garaizabalek adierazi duenez, udala gertatzen dabilen guztiaren "gainean dago". Adierazi du udaltzaingoak

gertatzen zebilenaren gaineko inzitentzia txostena zabaltzea zuzen orain zazpi bat hilabete, eta auzia "arlo juridikotik" dabilzala ikertzen. Gainerakoan, Garaizabalek jakinarazi du kamioien joan-eto-

rriak neurtzeko gailuak ipiniko dituztela han inguruan, eta trafiko ikuskaritza bat egitea ere aurrekusi dutela. "Asmoa ahalik eta kalterik gutxien" eragitea dela gaineratu du.



Joan zen barikuan egin zuten protesta Muntzaratzetik Goxentziarako zubian.



## ikasgela bat egokitu gura dute Iurretako ambulatorio ondoko lokalean

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bixente Kapanaga kalean ikasteko lekua egokitu dute, Iurretako Udalak jubilatuen taberna ondoan duen lokalean (IMiko lokalak). Lokal horretan ikasteko bost gune egokitzea proposatu du gobernu taldeak, 25-30 lagunentzako lekua izango duena. Komuna ere ipiniko dute, Iñaki Totorikaguena alkateak esan duenez. Lanotarako, 60.000 euroko diru atala lotu gura dute, iazko udal aurrekontua kitzatuta geratuko den soberanekin. Gaur egun, herriko 4-5 elkarte erabiltzen dute lokala, biltegi lez. Bada, udalak Aita San Migel plazan duen beste lokal batean egokituko da leku bat horientzat.



# Mallabiko Zubiate familia bertoko zuhaitzekin osatutako basoak berreskuratzen dabil bere lurretako zortzi hektareatan

Pinudien errentagarritasunaren dekadentziaren aurrean, eredu berri baten aldeko apustua egin dute eta "ilusionatuta" daudela diote

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Joan da pinuak etekin ekonomikoa ematen zuen sasoi. Gaur egun, irabaziek ez dute konpentsatzen basoa zaintzeak eskatzen duen ahalegina. Horregaitik, Mallabiko Zubiate familiak bestelako apustu bat egitea erabaki du, eta euren lurretan bertoko zuhaitzak sartzen dabil.

Goita auzoko San Martin base-rrian bizi dira, izen bereko ermitaren ondo-ondoan. Oraingoan, euren lurretako gune bitan hiru hektarea pasatxo berreskuratuta ditzuzte, eta, besteak beste, haritz, astigar, lizar, gerizondo, urki, sagarmin eta pago landareak sartu dituzte. Beste bost hektarea garbitzen eta prestatzen dabil, landaketa datorren urtean egin ahal izateko.

Proiektuagaz aurrera egiteko, Besaia enpresako Keko Alonsoren laguntza eta aholkularitza jaso dituzte. Inguruotan aitzindariak dira horretan. Ia ez dago antzerako kasurik. Baina "joera aldaketa" baten atarian egon gaitzkeela uste du Ibon Zubiatek. "Jendea hortxe



Zubiate familiaren lurak, bertoko askotariko zuhaitzak landatuta.

dago oraindino, eusten, baina guk pausoa eman dugu eta askok zoriondu egin gaituzte", dio. Gainera, "alternatiba desastre bat da gaur egun", gehitu du Pedro Marik, Ibonen anaiak.

Apustua garbia da: kalitatea kantitatearen aurretik; eta merkatu zabalago baten aukera ohiko

papertegien gaineratik. Adibideak ipini dituzte. "Parisko Notre Dame katedrala berreraikitzeke, haritza erabiltzen dabil, eta arbola bakoitzak 15.000 euro ordaintzen dabil. Bestetik, Fender gitarrak lizarragaz egiten dira; orain gabezia ei dago eta egur bila dabil. Guk landare biak ditugu", dio Ibonek. Arraseko

mozketak barik, mozketak selektiboak lehenesten dituen eredu da. Mozketa eredu horri jarraituta, "hektarea bakoitzeko 2.000 metro karratu moztu" daitezkeela diote. "Kontua da errespetuz egitea; toki batean bat bota, harago beste bi...". gehitu du. Zuhaitzak mozteko, asko itxaron behar da? "Behar den egur

klasearen arabera. 20 urtean lodiera ederreko enborrak lortu daitezke", dio Pedro Marik.

Monolaborantzaren aurrean, espezie desberdinetako basoak hainbat abantaila omen du; esaterako, gaixotasunen aurrean arbolak babestuago daude. Beste hainbeste gertatzen da sute arriskuagaz: eukaliptoekin alderatuta, zorua umelago mantentzen dute. Sasien kontrako errezeta ere ba omen dira. "Ez duzu sasirik aurkituko pagadi batean", diote. Faunaren eta floraren biodibertsitateak dakarren aberastasuna da beste abantaila bat.

## Bidean "gozatzeko" prest

"Ilusionatuta gaude", diote anaiaiek. "Gu ez gaude hemendik urte askora begirako etekinei begira. Gure poza horren gaineratik dago. Arbolak landatu genituen lehenengo egunetik dugu ilusio berezi bat. Baso hauek ikusgarriak izango dira eta bidean gozatzeko asmoa dugu, egunero", azaldu dute.



\*Baliozko eskaintza 2021/03/31ra arte. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).

## Hibrido Entxufagarriak

EQ POWER

Aukeratzea inoiz ez da hain erraza izan.

Bizitza aukera batetik beste batera salto egitean datza. Hori dela eta, Mercedes-Benz-ek duen EQ Power Hibrido Entxufagarrien gaman 20 modelo baino gehiago aurki ditzakezu: konpaktuak, berlinak eta SUV-ak. Ezagut itzazu diesel eta gasolina bertsioak.

### Eskaintza.

- Wallbox kargatzailea opari, 3 urteko bermea duena.
- Instalazioa dohainik\*.

Mercedes-Benz



## Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa  
Retuerto Kalea, 38.  
48903 BARAKALDO.  
Tel.: 94 497 00 74.  
[www.mercedes-benz-aguinaga.es](http://www.mercedes-benz-aguinaga.es)

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.  
48340 AMOREBIETA.  
Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.  
48014 BILBAO (DEUSTU).  
Tel.: 94 447 08 40.

Iparagirre etorbidea, 90.  
48940 LEIOA.  
Tel.: 94 463 11 75.



# “Abortu naturala bistaratzeko premia nuen, ez dago-eta gaiari buruzko ezer”

Eider Moreno Zubiaga elorriarrak 'Kattalin ez da jai' komiki liburua kaleratu du Zoila Ascasibar argitaletxeagaz

**ELORRIO • EKAITZ HERRERA**

"Zer egiten du gorputzak umea galtzerakoan?", "Zerbait naturala den neurrian, gorputzak berez bota beharko du barrukoa, ezta?". Bere buruari halako galderak eginda, Morenok umea galtzearen gainean eta horri buruzko informazio faltaren gainean jardun du, lehenengo pertsonan.

**Oso intimoa den pasarte bat komiki bihurtu duzu. Zure barruak husteko ariketa izan da?**

Ez dakit barruak husteko modu bat izan den. Iruditzen zait bere momentuan irten ez zuen indar batek orain topatu duela argitara irteteko bidea. Horrela sentitu dut hasieratik. Beti izan naiz gauzak idaztekoa eta betidanik izan dut zerbait argitaratzeko gogo. Ez nekien zer izango zen, baina hau gertatutakoan argi ikusi nuen haxe zela argitaratu gura nuena.

**Abortu naturalaren gaia ikusarazteko beharrian bati erantzun gura izan diozu?**

Bai, guztiz bistaratzeko premia nuen. Izan ere, ez nuen gaiari buruzko ezer ere topatzen. Eta ezin

nuen sinetsi. Neure buruari galdetzen nion: "Zer egiten du gorputzak halako zeozer gertatzen denean?", "Zerbait naturala den neurrian, gorputzak berez bota beharko du barrukoa, ezta?". Halako gauzak irakurtzeak ikusgarritasun bat ematen duela iruditzen zait. Esango nuke liburua askori egingo zaiola lagungarri.

**Erreferentzialtasuna inportantea da, beraz.**

Bai. Han-hemenka horrelako gauzak irakurtzeak lasaitasuna ematen dizu. Izan ere, medikuntzatik ematen diren aukerak bi dira: pilulak hartzea edo legratua egitea. Baina abortatzeko modu naturala, gorputzak berez kanporatzen duena, ez da aipatzen. Ezin duzu inora jo hori ere posible dela ikusteko.

**Medikuntzaren bidetik barik, zuk modu naturalean garatu duzu abortuaren prozesua.**

Bai. Senak esaten zidan naturak bazuela barrukoa zeozelan kanporatzeko modua. Emakumeak milaka urte dituen gero, zeozelan aurre egin behar izan diola. Azken finean, gorputzak detekta-



**Eider Moreno Zubiaga**

'Kattalin ez da jai' komiki liburua kaleratu du

ELORRIO | 1981

tzen duenean hasitako prozesua aurrera ez doala, hori garbitzeko prozesua ipintzen du martxan. Zer eskaintzen du medikuntzak? Bada, bizkortasuna. Gizartea hain azkar doanez, medikuntzak hori ematen dizu, bat-batekotasuna. Beharbada bide natural hau ez da baliagarria izango emakume guztientzat, baina izan daiteke batzuentzat. Gauza hauek kontzienteago bizi gura dutenek, denbora dutenek behintzat,

jakin dezatela badirela bestelako aukerak ere.

**Zelakoa da bide natural hori?**

Funtsean, zain egotea da kontua. Eta ez da prozesu bizkorra. Hiru egunean egon nintzen uzkurdukin, jarioekin. Eta ez daukazunez ia informaziorik, ez dakizu hori guzti hori arrunta den. Gertatzen ari zenaren kontzientzia hartu nuenean bota nuen barrukoa. Nik Kattalin deituriko hazi horren kon-

tzientzia hartutakoan, "honaino ailegatu gara" esaterakoan, hasi nintzen uzkurdukin. Zure energia gorputzera bideratzerakoan, gorputzak igarri egiten du hori.

**Zelakoa izan da komikia egiteko bidea?**

Ez da egon gidoirik. Hasieran, zerbait idaztekotan nengoen. Baina egin nuen lehenengo gauza irudi bat egitea izan zen. Horrela irten du denak. Berez etorri da dena.

## Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du Atxondoko Maortuerrekaren alde bat zaharberritu duela

Erreka-ertza linealki egonkortzea helburu izan duten lanen aurrekontua 7.182 eurokoa izan dela azaldu dute

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Uraren Euskal Agentziak Atxondoko Maortuerrekako ezker aldeko zatia konpondu duela jakinarazi du. Ohar baten bitartez azaldu dutenez, erreka ezker aldeko zati

**Errekaren alde bat eraberritzeko, ibaiertzeko landaredi txirikordatu bizia erabili dute**

bat zaharberritu dute, ibaiertzeko landaredi txirikordatu bizia erabili. Lanen helburua ertza linealki egonkortzea izan da eta Atxondoko Udalak eskatuta egin direla azaldu dute.

Bestalde, lanek 7.182 euroko kostua izan dutela azaldu dute.



Maortuerrekaren alde bat zaharberritu dute.

## Hizkuntza ohiturak aldatzeko asmoz, Gurasolagun ekimena martxan Berrizen

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Gurasoek eta seme-alabek elkarrengatik euskaraz jolastu, abestu eta, azken finean, euskaraz bizitzeko asmoz, Gurasolagun egitasmoa martxan ipini dute Berrizen. Udaletik azaldu dutenez, guraso euskaldunak eta euskara ikasten dabiltzanak hartu-emanetan ipiniko dituen ekimen honek.

Antolatzaileen esanetan, guraso talde txikiak sortuta gauzatu da ekimena. Gainera, taldeak osatzerakoan, norberaren interes eta zaletasunak kontuan hartuko dira. Horrez gainera, ordutegia eta eguna talde bakoitzak zehaztuko dituela azaldu dute.

Parte hartu gura duenak Berbalagunen 639 400 786 zenbakira edo udaleko Euskara Saileko 94 622 53 69ra deitu beharko du.





# Ostalaritza gida

 **Durango**



**OIERDI**  
Herriko gudarien 8, DURANGO  
**Tel.: 946 129 824**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



**GAUARGI**  
Dantzari Etxetaldea, IURRETA  
**Tel.: 944 356 674**  
·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

 **Durango**



**AI AMA**  
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO  
**Tel.: 946 232 240**  
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**




**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**





# Zornotzako Udalak bideo bat eta argazki erakusketa bat prestatu ditu Emakume Nekazari eta Artisauen Azokaren ordeztan

Emakumeek sektorean egiten duten lana ikusarazteko antolatuta dituzte ekimen biak udalaren laguntzagaz

**ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO**

Emakume Nekazari eta Artisauen Azokaren 24. edizioa zen egitekoa aurten. Horren ordeztan, Zornotzako Udalak *Lehen sektoreko emakume langileen azoka 2021 bideoa* eta *Emakume baserritarrak* erakusketa prestatu ditu.

Saioa Mantzizidor, Camelia Spiridon eta Itsaso Uzcanga Zornotzako bizilagunak dira ikus-entzunezko lanaren ardatza. Bideo hori Amorebieta-Etxanoko Udalaren Youtube kanalean ikusi daiteke. "Bideoa aukera bat da gure sektorean

**Saioa Mantzizidor,  
Camelia Spiridon eta  
Itsaso Uzcanga dira ikus-entzunezkoaren ardatza**

egiten dugun lan guztia erakusteko; gurera emakume gehiago hurbiltzeko aukera ere bada", azaldu du Spiridonek. Aurkezpenean, Andoni Agirrebeitia alkatea eta Ainhoa Sal-

terain Berdintasun zinegotzia ere egon ziren.

Joan zen asteko prentsaurrekoan, Gaittun elkarteke Iratxe Martinez Mazaga eta Gema Arrugaeta kideek parte hartu zuten. *Emakume baserritarrak* erakusketa-aren sustatzaileak dira biak; guz-

**Gaur da azkenengo eguna  
Udaletxe Plazako argazki  
erakusketa ikusteko**

tira, hamabost argazkik osatzen dute erakusketa, eta 27 emakume ageri dira horietan. Erakusketa martxoaren 5etik 18ra egongo da zabalik, Udaletxeke Plazan. Beraz, gaur da azkenengo eguna argazkiok ikusteko. "Emakume horien lana ikusarazi egin behar da, eta horixe egin gura izan dugu argazkien bitartez", azaldu du Arrugaeta argazkilariak.



Zornotzako udal ordezkariak eta emakume baserritarrak joan zen astean egindako prentsaurrekoan.



Irudian Santa Engrazia errekaaren ertzean egindako lanak ikusten dira. URA AGENTZIA

## Enborrezko horma ibaiertzera egonkortzeko Otxandion

URA agentziak Santa Engrazia errekaaren ertzera konpondu du, hango zuhaitz bat jausi eta ingurua desegonkortu eta gero

**OTXANDIO • J.D.**

Uraren Euskal Agentziak Santa Engrazia errekaaren ertzera higitu du finkatu du Otxandion. Zuhaitz handi baten zutarrak askatu eta lurra desegonkortu zen. Bertatik igarotzen zen bidea arriskutsu bihurtu zuen horrek, eta, egoera horren aurrean, ibaiertzera krainer horma batez finkatu dute: hau da, enborrez osatutako horma

bat egin dute, ibaiertzera zuhaitz propioak abaritzen dituen, landaretza izan dadin erreka tarte horren egoera babestu, finkatu eta hobetuko duena.

Jausitako zuhaitza ibilguan bertan utzi dute, biodibertsitatearako eta inguruko ibai-dinamikarako interesgarritzat jotzen dutelako, ohar batean azaldu dutenez. Lanek 14.000 euroko inbertsioa izan dute.



**Zuhaitz landare berriak Mainondoko eskolako eta Omegako parkean**

**OTXANDIO • J.D.**

Mainondoko haur parke inguruan hainbat zuhaitz garai dago, eta eurretari lau ihartuta zeudela jakinarazi zuen Otxandio Udalak iazko udan. Norbaitek pozoindu egin zituelako ihartu ziren zuhaitz horiek. Orain, pozoitutako lizar horien ordeztan Mainondoko eskolako parkean landare berriak landatu dituztela informatu dute udaletik. Horrez gainera, inguru horretarako egokiagoak diren beste zuhaitz landare bi landatu dituzte Otxandio Omegako parkean, eta San Martinen pago landare berriak sartu dituzte, etorkizunean pagadia zabaldu eta biziberritzeko.

**Izurtzan bere bidea hasi eta gero, laster Garaira zabalduko dute MOBI Durangaldea**

**IZURTZA • J.D.**

Adinekoen ohitura sedentarioari amaiera eman eta mugikortasuna sustatzeko, Durangaldeko Mankomunitateak antolatutako MOBI Durangaldea zerbitzua eskaini zuten Izurtzan joan zen astean, lehenengoz. Aurrerantzean, arloko aditu bat martitzenero egongo da erabilera anitzeko tokian, 11:30etik 13:30era. Antolatzaileak gustura daude egitasmoak Izurtzan eta gainerako herrietan izan duen harreagaraz. Gainera, datorren asteko eguenean Garaira zabalduko dute zerbitzua. Eguenero eman go dute zerbitzua, 09:00etatik 14:00etara, kultur etxean.



**Mañarian diru laguntzak eskatu daitezke putzu septikoak ipintzeko**

**MAÑARIA • J.D.**

Martxoaren amaieran bitartean, Mañariko Udalean diru laguntzak eskatu daitezke putzu septikoak berriztatzeke edo berriak egiteke. Azken urteetan, urtero-urtero martxan ipini dute diru laguntza da.

Batez ere, ur saneamendua heltzen ez den baserri eta etxebizitzetara laguntzeko helburuz sortu zuten. Mañariko Udalak 10.000 euro gorde ditu zeregin honetarako.

Eskaerak udaletxean egin behar dira, eta laguntzak jaso ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diren jasotzen duen txostena ere toki berean jaso eta irakurri daiteke.





Garaiko Landetxearen barrualdea.

## Garaiko landetxeek gaba bateko edo biko erreserbak jaso dituzte Aste Santuari begira

Udalerrien arteko itxialdi perimetrala kentzeak haize apur bat eman die Garaiko Landetxeari eta Oar Cottage etxeari

**GARAI** • EKAITZ HERRERA

Garaiko landetxeek dena prest dute Aste Santuko oporraldirako. Itxialdi perimetrala kentzeak haize apur bat eman die. Egunotan, "mugimendua" igarri dute Garaiko Landetxean eta Oar Cottage landetxean. Telefono dei asko jaso dituzte bietan, nahiz eta egoera ez den onena eta oporraldi honetako bisitariak, gehienez ere, Arabatik, Bizkaitik edo Gipuzkoatik etorriko diren Garaira. "Hasieran, Euskal Herritik kanpoko jendea zen etor-

tzekoa: Madrildik, Kataluniatik edo Murtziatik. Erreserba luzeak egin zizkiguten, lau zapabost egunekoak. Baina Autonomia Erkidegoetatik irteteko debekua ezarri zenean erreserba guztiak bertan behera geratu zitzaizkigun", azaldu du Jasone Gezuragak, Garaiko Landetxeko arduradunak. "Orain gaba bateko edo biko erreserbak ditugu, Euskadiko herritarrenak. Iraupen laburragoko erreserbak dira eta bikote gazteenak dira asko", azpimarratu du.

Handik gertu, Oar Cottage landetxean, berdintsua da egoera. "Joan den asteburuan, Aste Santuari eta oraingo zubi honi begirako hainbat erreserba sartu zitzaigun. Gaba bateko edo biko erreserbak dira gehienak. Erantzun ona izaten ari gara. Bizkaitarrak dira gehienak, Leioa eta inguru horietako herritarrenak. Igartzen da herritarrek irteerak egiteko gogotsu daudela", azaldu du Oar Cottage landetxeko Carmen Cuestak.

Garaiko landetxeetako kideek baikortasunez ikusi gura dute uda eta datorren urtea.

### Durangaldea asteen

#### Hainbat film laburrez emango diete hasiera Bosgarren Mendi Jardunaldiei

**Zaldibar** | Bilbao Mendi Film Festivaleko hainbat film laburrek emango diete hasiera Mendi Jardunaldiei Zaldibarren, martxoaren 22an eta 29an. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, emanaldiak 18:30ean hasiko dira, Zaldibarko Liburutegi Zaharrean.

#### Azken agur bero eta hunkigarria eskaini diote Osvaldo Valdesi Durangon

**Durango** | Osvaldo Valdés durangarra martxo hasieran hil zen, eta domekan dozenaka lagun batu ziren Andra Mariko elizpean hari azken agurra emateko. Valdés pertsona maitatua zen eta hori agerian geratu zen domekako ekitaldi jendetsuan. Osvaldo bere poztasunagaz eta bizitzan gehien maite zituen zaletasunen bitartez gogoratu gura izan zuten. Horrela, musika, dantza eta poesia izan ziren omenaldi hunkigarriaren ardatza.



#### Elorrioko 33 negoziok udal laguntzak jasoko dituzte krisiaren ondorioak arintzeko

**Elorrio** | Elorrioko Udalak jakinarazi du herriko negozio txikiei diruz lagunduko diela. Osasun krisiaren ondorioak arintzen lagundu gura die autonomoei, dendariei, negozio txikiei eta ostalariei. Negozioek "hurrengo asteetan" jasoko dute udalaren laguntza. Ostalaritzaren sektoreko 28 establezimenduk egin dituzte eskariak, eta 26k bete dituzte beharrezko baldintzak. Bestalde, zortzi laguntza-eskari erregistratu dira mikroenpresen eta autonomoen alorrean. Eurretari zozpik bete dituzte beharrezko baldintzak.

### Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

#### BIDEAN HARRI GEHIAGORIK EZ

La hiru hilabete igaro dira Gorka Palacios Aldai preso durangarra Murtziako espetxetik (820km) Valdemorora (440km) eraman zutenetik. Epaiketa bat zela medio gauzatu zuten espetxe batetik besterako mugimendua. Epaiketa prozesua bukatuta, oraindik Madrillgo kartzelan jarraitzen du, Murtziara buelta noiz egingo duen jakin barik.

Aste gogorak ari dira izaten, pandemiaren aitzakiapean hainbat neurri hartu baitituzte agintariek. Hala nola bisiten debekua (4 aste egon da bisita gabe) eta aurrez-aurrekoen murrizketa nabarmena (azkeneko 13 hilabeteetan 2). Gainera, Murtziako espetxean izandako gertakari bategatik, zigorra ezarri zioten duela zenbait aste, eta Valdemoron betearazi diote. Egutero patiora 4 orduz irteteko eskubidea daukan arren, orain 2 orduz ateratzen dute bakarrik; hau da, egunean 22 ordu egiten ditu zeldan. Elurteak izan dira Madrilen, eta bizi baldintzak nabarmen okertu dira zenbait astetan: berogailuak izorratuta, patiora irteteko debekua, zeldetako hezetasuna...

Hau gutxi balitz, oraindik ez diote Murtziarako bueltaren datarik jakinarazi. Honek guztiak eragin zuzena dauka presoarengan eta baita bere ingurukoengan ere, bizi dugun egoera berezi hau egonkortasunez eusteko aukerak murrizten baitira.

Durango SAREtik Gorkaren egoera salatu nahi dugu. Elkarbizitza eta konponbidearen bidean harri gehiago jar ez ditzaten eskatzen dugu, Gorkari eta bere inguruko bizi baldintza duinak berma diezaizkietela, lehenbailehen.

Miren Erdoiza, Durangoko Sareren izenean

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zerbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**MAKALLAU saltsan** **saltsan** KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta abar.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroatet, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

**hitz** artekalea 23, durango 946 810 776 info@hitzliburudenda.com

liburudenda

**#salduenak**

**MIÑAN** 7<sup>º</sup> Amets Arzallus & Ibrahim Balde (Susa)

**DENDAOSTEKOAK** 2<sup>º</sup> Uxue Alberdi (Susa)

**GAUZAK DIRENA BALIRA** 3<sup>º</sup> Joseba Sarrionandia (Pamiela)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Bulegorako ziguilak Fotolitoak

**Betikoak flexografia**

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9 48215 IURRETA





# DIFERENTZIAK


Topatu zazpi diferentziak.





# ZENBATU

Kolore bakoitzeko zenbat puxika daude?



# MARGOTU

Margotu pastela beheko koloreekin.





# BIRZIKLATU

Sartu hondakin bakoitza dagokion zaborrontzian.



**PLASTIKOA**



**PAPERA**



**BEIRA**



**ERREFUSA**





## Losers

ANTZERKIA ZORNOTZA :: Martxoak 19

### Bakoitzaren beldur eta mugak gaindituz, bizipozaren bila

Sara (Aitziber Garmendia) eta Imanol (Jon Plazaola) adinean aurrera doaz. Ia berrogei urte egin dituzte. Adin horretara helduta, ez dute umerik, bikotekiderik ere ez, eta diruz urri, ez dute aukerarik etxerik erosteko... Euren

burua galtzailatzat dute. Aldatzeko itxaropenik barik, etsita bizi dira. Baina pozik bizi gura dute. Txalo Produksioak-ek *Losers (galtzailleak)* obra taularatuko du Zornotza Aretoan, martxoaren 19an, 19:00etan.

### Martxoaren 18an

**ABADIÑO dokumentala**  
**'Andereak'** (Yolanda Mazkiaran Zelaia),  
19:00etan, Errota kultur etxean.

**ZORNOTZA musika**  
**Bitartean Folk**,  
19:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

### Martxoaren 21ean

**DURANGO txotxongilo ikuskizuna**  
**'Kottondarrak'** (Anita Maravillas konpainia),  
12:30ean, San Agustin kulturgunean. Bigarren emanaldi bat eskainiko dute, 18:00etan.

### Martxoaren 23an

**ZORNOTZA zinekluba**  
**'Solo nos queda bailar'**,  
19:00etan, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 24an

**BERRIZ dokumentala**  
**Zinegoak jaialdia**,  
18:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Jatorrizko hizkuntzan eta azpituak euskaraz.

### Martxoaren 25ean

**BERRIZ aurkezpena**  
**Asisko Urmenetak**  
**'Sugarren mende'** nobela grafikoa aurkeztuko du, 18:30ean, Herri Bibliotekan.

**DURANGO berbaldia**  
**'Engendrar el sistema: mirada feminista a la explotación reproductiva'** (Andereak elkarteak), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

### Martxoaren 26an

**ABADIÑO antzerkia**  
**'Fotos, hormonas y lexatin'** (Tdiferencia Antzerki feminista),  
19:00etan, Errota kultur etxean.

**BERRIZ antzerkia**  
**'Pinocchio'** (Gorakada konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

**ELORRIO antzerkia**  
**'Atzerrian lurra garratz'** (Artedrama & Huts Teatro), 19:00etan, Arriola antzokian.

**ZORNOTZA musika**  
**Guda Dantza**, 19:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan. Gauero+ egitarauaren eskutik.

### Martxoaren 27an

**BERRIZ ipuinak**  
**'Horiek bai benetako heroiak'** (Ameli eta Irati ipuin kontalariak),  
12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

**BERRIZ dantza**  
**'Orbita'** (Zen del Sur),  
19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

**ELORRIO berbaldia**  
**Txertoei buruzko berbaldia**, 11:30ean, Arriola antzokian.  
Hizlaria: Xavier Uriarte, mediku espezialista errehabilitazioan, osasun publikoan eta medikuntza naturistan. Bizipoza elkarteak antolatuta. Izena ematea derrigorra da: [elkarteabizipoza@gmail.com](mailto:elkarteabizipoza@gmail.com). Sarrera, borondatea.

### Martxoaren 29ra arte

**BERRIZ izena ematea**  
**Jarduera fisikorako ikastaroak**, apirilaren 6tik ekainaren 30era arte. Izena emateko epea zabalik dago: 946 826 244 telefono zenbakira deituta edo [kontrol@berriz.eus](mailto:kontrol@berriz.eus) posta elektronikora idatzita. Zozketa martxoaren 30ean egingo dute.

### Martxoaren 31ra arte

**ZORNOTZA erakusketa**  
**'Emakume anitzen egunerako borrokak'**, argazki erakusketa, Zelaieta zentroan. Lagunartean elkarteak antolatuta.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

### :: Abadiño ERROTA KULTUR ETXEA

• **Tierras altas**  
zapateria 20: 19:00  
• **Padre no hay más que uno 2**  
domeka 21: 17:00

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Raya y el último dragón**  
eguna 18: 17:00  
domeka 21: 17:00

### :: Durango ZUGAZA

• **Dardara**  
barikua 19: 17:30/19:30  
zapateria 20: 17:30/19:30  
domeka 21: 17:30/19:30  
astelehena 22: 17:30/19:30  
martitena 23: 19:30  
eguzatena 24: 18:30  
• **Immune**  
barikua 19: 19:30  
zapateria 20: 19:30  
domeka 21: 19:30  
astelehena 22: 17:30/19:30  
martitena 23: 19:30  
eguzatena 24: 18:30


• **El agente topo**  
barikua 19: 19:30  
zapateria 20: 19:30  
domeka 21: 19:30  
astelehena 22: 17:30/19:30  
martitena 23: 19:30  
eguzatena 24: 18:30  
• **Raya y el último dragón**  
barikua 19: 17:00  
zapateria 20: 17:00  
domeka 21: 17:00  
• **Kranston ikastetxea**  
barikua 19: 17:30  
zapateria 20: 17:30  
domeka 21: 17:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Entre nosotras**  
zapateria 20: 19:00  
domeka 21: 19:00  
astelehena 22: 19:00  
• **Manou**  
domeka 21: 16:00

### :: Zornotza ARETOA

• **La chica del brazalet**  
zapateria 20: 19:00  
domeka 21: 19:00  
astelehena 22: 19:00  
• **Raya y el último dragón**  
zapateria 20: 12:00  
domeka 21: 12:00





# “Egoera mingarri batetik datorren liburua da, baina badu jolasetik ere”

Jon Ander Urkiaga zornotzarrak bere bigarren poema liburua kaleratu du: 'Bizia min'; Luces de Gálibo argitaletxeak kaleratu dio lana



Jon Ander Urkiaga Egidazu

Idazlea

ZORNOTZA | 1987

idatzi sortzen zidan, eta, apur bat landuz gero, testu kopuru dezente elkartzeko aukera izango nuela uste nuen. Ordu asko igaro nituen bertan, eta oharretariko asko mugikorrean bertan hartzen nituen. Bizipen horien bitartez hasi nintzen idazten, eta liburuaren forma gerora ikusi nion.

**Egituraketan ere ikusten da lotura bat.**

Liburuaren egitura atzera kontaketa bat da. Eskema horregaz, liburua zeroan amaitzen da, oso argia da, esplizitua. Liburua hiru zatitan dago banatuta. Bata bisualagoa da; beste bat, abstraktoagoa, gogoeta gehiagoga. Hirugarrena, ostera, herio kantak dira, musikatuagoak izateko moduko poemak dira.

“**Gordina da, heriotza gordina delako. Bizitza bera ere gordina da, eta, azken batean, hemen bizitza edo errealitatea islatzen ahalegindu naiz**”

**Idazkera aldetik, gordina da.**

Gordina da, heriotza gordina delako. Bizitza bera ere gordina da, eta, azken batean, hemen bizitza edo errealitatea islatzen ahalegindu naiz. Askotan, ez dago errealitatea bera baino gauza gordinagorik. Lehen esandako moduan, liburua blokeetan banatuta dago; batzuetan, beharbada argiago ikusten da gordintasun hori. Beste batzuetan, hizkuntza poetikoago baten bitartez, ez dira hainbeste bistara geratzen.

**Luces de Gálibogaz argitaratu duzu liburua.**

Hasieran, hainbat aukera nuen esku artean. Ez da sasoirik onena literaturarentzat, edo argitaletxeentzat, orokorrean. Autoekoizpenaren ideia ere izan nuen buruan. Nafarroako Kutxa fundazioaren gazteentzako lehenengo poesia sariaren kontua gero ailegatu zen, eta baita Luces de Galibogaz argitaratzeko aukera ere.

**POESIA • ARITZ MALDONADO**

**Jon Ander Urkiaga zornotzarrak 'Bizia min' poema liburua kaleratu du oraintsu, Luces de Galibo argitaletxeagaz; ia 40 olerkik osatzen dute lana. Nafarroako Kutxako fundazioaren gazteentzako poesia lehiaketa irabazi du lan honeguz. Aurretik, 'Atea itxi aurretik' poema liburua argitaratu zuen, 2012an. Gustura dago Urkiaga eginiko lanagaz, gai gordina jorratu arren. "Heriotza bezain gordin, bizitza bezain gordin".**

**'Bizia min'. Berba joko bat da?**

Bai, berba joko bat da, hasieratik argi eduki dudana, liburu honen atzean minbizia kasu bat dagoela-

ko. Ikusten denez, olerkiek ez dute izenbururik; inoiz ere ez naiz eroso sentitu poemei izenburua ipintzen. Liburuaren izenburuagaz, ostera, ez dut inongo zalantzarik izan. Argi eta garbi nuen horixe izango zela izenburua. Liburuak berak, bere horretan, justifikatzen du izenburua. Berez, ez dago hori justifikatzeko beharizanik, baina hogeitabatgarren poemak erreferentzia egiten dio horri. Mina ulertzeko hainbat modu dago, lehenengo burretan zaigun hori, baina poema hori idazterakoan, jolas moduan hartu nuen nik. Hiztegian mina berbari begiratuta, esanahi piloia eta desberdinak dituela ikusi nuen, eta horrek indarra hartzen du 21.

olerkian. Minak, bere osotasunean hartzen du lekua izenburuan. **Minetik idatzita dagoen liburua da?** Nire asmoa ez da hori izan, liburu ilun bat idaztea, zelanbait esateko. Minetik idatzita dago, atzean gertaera mingarri bat duelako funtsean. Egoera mingarri batetik dator liburua, baina jolasetik ere badu. Umore ukitua ere badu, agian behar beste eduki ez arren. Momentu batean, bizipen hauetatik sortzeko premia eta aukera nuen, sentimendu batzuk berben bitartez islatzeko beharrezana. **Mina da ardatza, baina irakurketa ez da mingarria, edo soilik mingarria behintzat.** Ez, esan dudana moduan, egoera

mingarri batetik sortutakoa da, baina, hortik aurrera, ariketa moduko bat da niretzat, eta, momentu batzuetan, jolas modura ere hartu izan dudana, barruan nituen zera horiek kanporatzeko. Prozesu guztia ez da mina edo iluna izan. **Hasieratik zenuen liburuan publikatzeko asmoa?** Ez, badaude lauzpabost poema jatorrian idatzi nituen moduan geratu direnak, hasieran egindako moduan. Aita minbiziagaz hasitako momentu horretakoak dira. Gerora, ospitalean egon zenean, han igarotzen nituen orduak luzeak baino luzeagoak ziren, eta, buruari eragin ostean, pentsatu nuen banuela zer kontatu. Egoerak zer

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal


**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión





# merkataritza gida sarean



[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida BERRIA  
euskaraz eta sarean!***

**Merkatartza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902**  
**Argazkiak - Datuak - Kokapena**  
(urtean 50€)





**Oier Casado  
Kortabarría**

**Movistar taldeko  
mekanikoa**

**ABADIÑO | 1977**

## “Mekanikari baten lanak ez du ordutegirik; batzuetan, gauerdira arte luzatu daiteke”

Oier Casado abadiñarra goi mailako txirrindularitzan erreferenteetarikoa den Movistar taldeko mekanikaria da

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Txirrindularien artean oso baloratuta daude, baina handik kanpora ez hainbeste, ezjakintasunagaitik, egiten duten lana eta talde barruan duten pisua ez delako benetan ezagutzen. Oier Casado Movistar Taldeko mekanikaria da gaur egun. Paris-Niza itzulian zegoela elkarrizketatu dugu, telefonoz. Hitzordua ipini aurretik, hurrengo eguneko ordutegia errepasatu behar izan du, tarte bat noiz duen jakiteko. Goizaldean, 5:30ean, baieztatu digu goiz horretarako hitzordua.

**Hain goiz hasten da mekanikari baten laneguna?**

Batzuetan bai. Lasterketaren araberak. Normalean, ez gara egoten lasterketa hasten den herrian, eta batez beste 50 kilometro egin behar ditugu. Lasterketa hasi baino lau-bost ordu lehenago hasten da gure laneguna.

**Eta zer ordutan amaitzen da?**

Lana amaitzen denean. Mekanikari lanak ez du ordutegirik: batzuetan, gauerdira arte luzatu daiteke. Egunean bertan dena prest uzten dugu hurrengo egunerako. Ez dakizulako hurrengo goizean zer gertatu daitekeen. Esaterako, antolakuntzak ordutegia aldatzen badu bat-batean? Hori ere aurreikusitako beharra dago.

**Zein da lasterketa egun bateko ohiko lana?**

Goizetan, lehenengo, gurpil guztiak puztu eta bateriak konprobatzen ditugu. Kotxe barruan eraman beharrekoak kargatu eta irteera puntura joaten gara. Han, errepidean ibiliko diren bizikleta guztiak errebisatzen ditugu. Lasterketan zehar txirrindularien atzean joaten gara, kotxean. Etapa amaitzen denean, batu eta hotelera. Beste 80-100 bat kilometro. Han, bizikletak garbitu, prestatu...

**Makina bat kontu dira.**

Bai, eta gure lana ez da mekanika arlorak bakarrik mugitzen. Horri lotutako beste zeregin batzuk ere badaude. Kamioiak edo autobusak gidatzea ere egokitu ahal zaizu, esaterako.

**Denboraldi batean egun asko ematen dituzue etxetik kanpora. Alde horretatik, gogorra da?**

Gustatu egin behar zaizun lana da. Ez da lan normal bat. Afizioa izan behar duzu. Guk urtebetean 180 bat egun ematen ditugu etxetik kanpora.

**Gaur egungo bizikletek puntako teknologia dabilte. Horrek etengabeko formakuntza eskatzen dio mekanikari bati?**

Bai, beti ikasten eta zeure burua birziklatzen ibili behar duzu.

Egunero irteten du berria den zerbaitek. Nik beti diot gu marken probategia garela. Merkaturatu aurretik, pieza berriak probatzen ditugu. Eskaparate modukoak gara. Markek pieza berri horretako adituak bidaltzen dituzte lasterketetara, eta eurei galdetzen dizkiegu dudak. Horrek laguntzen du.

**Zu mundu honetan hasi zinenen, kanbioak bizikleten koadroetan zeuden?**

Koadroan bertan ez, heldulekutan. Baina, bai, bizikletak asko aldatu dira. Orain kanbioek bluetooth sistemagaz funtzionatzen dute. Ni

16 urtegaz hasi nintzen mekanikari moduan, atera kontuak.

**Zure ibilbidean talde askotan egon zara. Baina denen artean, salto kualitatiborik handiena Seguros Bilbao taldetik Tinkoff talderakoa izan zen?**

Aurretik Illes Balears eta Kaiku taldeetan egonda nengoan, baina, bai, orain nagoen tokira heltzeko mugarrira Tinkoff talderako saltoa izan zen. Horri eskerrak, zortzi urtean Joaquim 'Purito' Rodriguezen mekanikaria izan nintzen, besteak beste.

**'Purito' Rodriguez izan da lortarik handiena utzi dizun txirrindularia?**

Beragaz oso hartu-eman ona izan dut, baina gehiago ere aipatuko nituzke: Filippo Pozzato, Tony Martin, Robbie McEwen... asko. Denekin tratu ona izan nuen. Askotan, txirrindulariek ozpinduta dauden itxura eman dezakete telebistaren aurrean, baina, gero, talde barruan gaudenean, beste mundu bat da. Orduan ezagutzen dira benetan pertsonak, eta hartu-eman sortzen da.

**Lasterketetan kotxean joaten zara, ezustekoei adi. Zein da bizi izan duzun momenturik estresanteena?**

Momenturik estresanteenak dira taldekide batek liderraren elastikoa daramanean eta zulaturen bat, arazo mekanikoren bat edo erorikoren bat izaten duenean.

**Gustatu egin behar zaizun lan bat da. Ez da lan normal bat. Guk urtebetean 180 bat egun ematen ditugu etxetik**

**Jendeak txirrindulariak ezagutzen ditu eta ez haren atzean kotxean doazenak. Baina beste mundu hori ere hor dago**

Tentsio handiko uneak dira. Segundo batean, ondorio asko izan ditzaketen erabakiak hartu behar dira. Horren baitan egon daiteke garaipena edo porrota. Talde bereko hiru jausi badira, denbora gutxian lehentasunak markatu behar dituzu, hau da, norengana joan lehenengo eta norengana gero.

Estres momentu konkreturik gogoratzen dudan? Bada, gogoan dut 'Purito' Rodriguez Espainiako Itzuliko lider zegoen etapa bat. Helmugarako 19 kilometroren faltan, eroriko bat gertatu zen eta 'Purito' euren artean zegoen. Ez dakit nor esan zuen 'Purito'-ren izena, baina entzun bezain laster bere ordezkari bizikletan neukan eskua. Automatikoki. Ez dago segundo bat galtzerik.

**Talde barruan eta txirrindularien artean zuen lanak izaten du errekonozimendua. Baina kanpora eta gizarteari begira, oharkabean pasatzen da?**

Baietz uste dut. Gure benetako lana ez da ezagutzen. Jendeak txirrindulariak ezagutzen ditu, baina ez haren atzean kotxean doazenak. Baina beste mundu hori ere existitzen da eta handia da. Gu gure traste guztiakin herri batera heltzen garenean, jendea harrিতa geratzen da. “Taldek hau guzti hau mugitzen du?” galdetzen dute.

**Zure ibilbidean garrantzitsuak diren pare bat izen nabarmendu behar bazenitu, zeintzuk lirakeke?**

Jende askok lagundu dit eta deniei esker oneko nago, baina badira pertsona bi nabarmentzekoak, euren laguntza eta konfiantza garrantzitsuak izan zirelako eta nire ibilbidean klabeak izan ziren momentuetan egon zirelako. Alberto Iturriaga da bat. Gazte-gaztetan, bizikleta utzi nuenean, beste kontu batzuetan nabilela, Iturriagak bere taldera sartzea eskaini zidan. Ate bat zabaltu zidan. Nire abiapuntua izan zen. Oscar Guerrero da beste. Caja Rural taldeagaz afizionatuetan nengoenean, bera zen zuzendaria eta berak igo ninduen profesionaletar.

**Segurtasun neurriek asko zailtzen dute zuen lana?**

Bai, zailtzen dute. Isolatuta gaude. Hoteletan bakarrik egoten gara. Janaria gelara ekartzen digute eta han jaten dugu. Lasterketetan ere bakarrik egoten gara irteeran, ez dagoelako zalerik. Eta hirulau egunerik behin, PCR probak egiten ditugu. Kontuan hartu nik bihar positibo emango banu talde osoak etxerako bidea hartu beharko lukeela. Ez da kudeatzeko erraza, eta kontuz ibili behar da.



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera




**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

**\* Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

 **anboto**



# DURANGALDE




## Muntsaratzeko dorretxea

Eraikin hau dorre-gotorlekua zen hasieran, eta hori nabaria da lehenengo solairuan. Oso itxia da, zaldiek arnasa hartzeko zulo estuak eta eraikineko sarrera baino ez daude. Sarreraren gainean armarria du. Muntsaratz familiak jauregi bihurtzea erabaki zuen, eta horren adibide dira goiko solairuak. Gaur egun, Hazi Fundazioaren egoitza da.



# KO TXOKOAK ?



## Saibgain mendia (960 m)

Saibgain mendia gudarien erresistentzia lekua izan zen frankisten aurka gerra zibilean. Apirilaren 6tik 15era, hamaika egunean, borroka latzak izan ziren bando bien artean. Saibgaineko tontorrean dagoen gurutzeta frankistek eraiki zuten. Bertan dagoen plaka, oster, hildako gudarien omenezkoa da.



# Hemen eta online



Sartu [anboto.org](http://anboto.org)-en  
menuan **iragarkiak**  
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta  
[iragarkilaburrak.eus](http://iragarkilaburrak.eus) orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu  
eta **erregistratu**  
egin behar zara.



## IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira [anboto.org](http://anboto.org)-en




**HIGIEZINAK**  
**TEKNOLOGIA**  
**LANA / NEGOZIOAK**  
**DENERIK**  
**IBILGAILUAK**  
**HARREMANAK**  
**AISIA / KIROLA**  
**FAMILIA / ETXEA**

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.  
Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta ipini zure iragarkia ( Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.





Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

**Eskela mota guztiak**

- Anboto paperean + [anboto.org](http://anboto.org)-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

**Zorion Agurrak** ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663  
[gozaturango@gmail.com](mailto:gozaturango@gmail.com)  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko, bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

Martxoaren 23an lehenengo urtea beteko dozu, **Adei!** Zorionak eta muxu handi bat!

**Botikak**

**BARIKUA, 19** 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 20** 09:00-09:00

**ETXEARRIA** Montevideo etorb. 2. - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

**BAZAN DIAZ** Urizarri 5 - DURANGO

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - DURANGO

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - DURANGO

**BALENCIAGA** Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

**NAVARRO** Artekalea 6 - DURANGO

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - DURANGO

**GAZTELUMENDI J.A.** Abasolo 2 - DURANGO

**SARRIA** Sasikoa 17, DURANGO

**LARRAÑA-GA-BALENTZIAGA** Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

**FARMAZIA MATIENA** Trañabarren 15. - ABADIÑO

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 21** 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Urizarri 5 - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA 22** 09:00-09:00

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 23** 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL** Askatasun etorb. 19 - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 24** 09:00-09:00

**MUGICA** Andra Maria 9 - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 25** 09:00-09:00

**BALENCIAGA** Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

Martxoaren 16an **Uzuri Cebrriane** 4 urte egin ditu! Zorixonak, marigorringo!

Zorionak, **Martin** eta **Arantza**! Igazko martxoaren 17a etxean eta bideoen bidez ospatu behar izan genuen. Oraingoan tabernan elkartuko gara, eta ea datorrenean munduko beste txokoren batean ospatu dezakegun!

Zorionak, **Haizea**! Nola pasatzen den denbora, 11 urte egin ditu gure neskatilak. Jarraitu orain arteko moduan, tontorreraino bidea eginez. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.

Zorionak, **Nile**, zure bigarren urtegunean Zaldibartik. Mosu potolo bat.

**Eguraldia**

ZAPATUA 6° / 3° ☁	ASTELEHENA 10° / 2° ☁	EGUAZTENA 15° / 6° ☁
DOMEKA 8° / 3° ☁	MARTITZENA 13° / 3° ☁	EGUENA 16° / 7° ☁

**clínicadental hortzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [uedental@gmail.com](mailto:uedental@gmail.com)



# “Gitarrista gustura eta eroso badago, sortzen duen musika hobea izango da”

Joserra Alvear luthierrak berak diseinatutako STL *Headless* gitarra elektriko ergonomikoak egiten ditu. Iazko urtarilean, Alvears Guitars tailerra zabaldu zuen Durangoan



**Joserra Alvear Otxandiano**  
Luthierrak  
DURANGO | 1966

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**  
Joserra Alvear nerabezaroan hasi zen gitarra jotzen. Gitarra klasi-koagaz lehenengo, eta gitarra elektrikoagaz geroago, rock doinuek erakarrita. The Cheap & Nasty Boys taldeko gitarrista izan zen, iaz arte; luthier lanetan hasi zenetik, taldeagaz guztiz lotuta jardutea gatz egin zitzaion arte. Los Mazmorras Killers taldean ere jo zuen aurretik. Gitarra aukeratzeko, eroso sentitzea ezinbestekoa dela uste du. Era berean, gitarraren eskala aintzat hartzea gomendatzen du. "Denok ez dugulako Jimi Hendrixen gorputza", dionez.

Noiz hasi zinen gitarra elektriko ergonomikoak egiten?  
Orain 10 urte hasi nintzen gaiari

bueltak ematen. Gitarra elektrikoak ñabardura asko du, oso aberatsa da horretan, eta denbora behar nuen etekin guztia ateratzeko. Gitarra elektrikoak jo gura nuen, ikasten jarraitu. Baina sentitzen nuen ez nuela aurrera egiten. Gitarra elektriko tradizionalen hainbat kopia egin dut, baina, jotzerakoan, instrumentuak berak enbarazu egiten zidala sentitzen nuen. **Diseinatutako gitarra elektrikoagaz lortu duzu bila zenbiltzan hori? Zerk egiten du berezi zuk diseinatutako *Headless* gitarra ergonomikoa?** Diseinatu dudak gitarrak instrumentuaz disfrutatzen aukera ematen dit, askatasun handia. Gitarra elektrikoak aukera asko ematen du mugimendu aldetik, eta, jotzerakoan, gitarra hartzeko modua

**STL gitarra ergonomikoak postura erosoagoak hartzen laguntzen du, gitarra elektrikoaren soinu indartsua galdu barik**

dela-eta, ez ditugu postura erosoak hartzen. *Headless* gitarra elektriko ergonomikoak, oster, postura egokiagoak hartzen laguntzen digu, gitarra elektrikoaren soinu indartsua galdu barik. Instrumentua bera egokitzen da gitarristara, eta ez alderantziz. Gitarra hartzeko moduak baldintzatu egiten gaitu askotan. Gitarra bakoitzak, duen itxuragaitik, musika bat edo beste sortzera garamatzala uste dut.

**Zelan lortu duzu gitarra elektriko baten soinu indartsuari eustea?**

Gitarra handiak sonoritate handiagaz lotzen dira. Eta hala da. Soinuak dar-dar egiteko kaxa handiagoa dute. Baina giderraren eta kaxaren arteko lotura ahulagoa dute. Diseinatutako gitarran, kaxaren tamaina txikia lotura sendoago batez orekatzen ahalegindu naiz: diapasoiak kolatu baino lehen, azkoinak ipintzen ditut. STL gitarra txikiagoa da, pisu gutxiago du (1,8 eta 2,5 kilo dute gehienez), mugikortasun handiagoa eskaintzen du eta ergonomia gehiago du. Jostailutxo bat dut esku artean, oso eramangarria. Orduak eman ditzaket gitarragaz, eroso, postura egokian, eta askoz ere etekin handiagoa atera diezaioket. Gitarrista gustura eta eroso badago, sortzen duen musika hobea izango da. Estetika baino gehiago, soinua zelan entzuten den da garrantzitsua. **Eskuz egiten dituzu gitarrak. Oso lan zorrotza da?**

Bai. Artisau-lana da, guztiz. Txantilo bat aukeratu ondoren, egurrean markatzen dut, moztu eta kaxa egiteko. Gero, giderragaz lotzen dut. Lizarra, astigarra, kaoba amerikarra... erabiltzen ditut. Pazientzia behar da, arreta ipintzea. Eskuz egindakoa denean igartzen da jotzerako orduan.

**Zer bezero mota duzu? Gitarrista profesionalik joan zaizu?**

Urte berezia izan da. Egoerak baldintzatuta, halako bezero-jario bat izan dut, eta etorri da profesionalen bat ere. Harrituta geratu da egindako lanagaz. Gainera, gitarra *headless*-ak geroago eta leku gehiago hartu du. Sistema modular baten bitartez, gitarraren zati bakoitza independentea da, eta oso erraz gehitu daitezke gura beste hari: 6,7,8 edo 12. Dena dela, gitarra irakasleek estimatu dute gehien nire lana. Ordu asko jarraian ematen dituzte gitarragaz.

**Nork inspiratu zintuen gitarra jotzera?**

Beatles entzuten nuen garaian, Frank Zapparen disko bat ekarri zidan anaiak. Liluratu egin ninduen. Jenio bat zen. Deep Purple, Led Zeppelin... beste asko etorri dira gero.

**Zelan zaindu behar dugu gitarra bat?**  
Zentzua erabiliz, ez du beste misteriorik. Erabilitako beste guztia lez.

**Lau-hortza**

Martin Loizate Sarrionandia Ikaslea



**Ibaiari begiratuz itsasoa ikustea**

Tokatzen zitzaidana baino lehen ezagutu nuen. Urte bi nagusiagoa izaki, arrebak afalorduan liluraz kontatzen zituen klasean entzundakoak. Garai batean beste gai guztiei gailentzen zitzaizkien gure etxeko mahaiaren bueltan Platon eta Marx, eta Agustin, Descartes eta Ortega y Gasset, baina batez ere lehen biak. Ezagutu, ez nuen ezagutzen, baina imajinatzen nuen.

Goienkalan ezagutu ginela uste dut, udaberriko jaietan kuadrillakoek aurkeztu zitadenean, batxilergoan hasteko hilabete gutxiren faltan.

Eta ikasgelan aurkeztu zenerako bagenekien zerbait kobazuloaz eta itzalez, klase borrokaz eta alienazioaz, ideien munduaz, tesiaz eta antitesiaz. Zerbait gehiago demokraziaz eta komunismoaz. Ordurako bagenekien musika pintxatzen zuela eta autokarabana bat zeukala. Hasieran galderak egiten zizkigun, eta gero guk berari, eta batzuetan kristo aurreko II. mendetik erantzuten zigun, Greziatik, bestetan Afrikatik, Alemaniatik... eta noizean behin -oso gutxitan- Ibaizabaletik. Sasoi hartan ikasi genuen eztabaidatzen eta pentsatzen -esan nahi baita kritikoak izaten-.

Orduko akorduak harea aleak atzamar artetik bezala jausten zaizkit orain, baina oroitzen dut esan zigula surfean aritutakoa zela baina urpekaritza nahiago zuela, azalean geratu baino gauzen hondoa ezagutzeko. Ordukoak ur uherrak ziren buzeatzeko.

Ezagutzea gogoratzea omen da, eta esango nuke gogoratzea ezagutzeaz gain imajinatzea ere badela. Zortea izan dugu bere ikasle izateagatik.



**MARTXOAK 4 - 24**  
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

# Plateretik baratzerara

errigora.eus



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

